



Harategi/urdaitegiko laguntzaile programa

PROIEKTUAREN HELBURUA

- Harakin-urdaitegiko langile jarduteko gaitzea, sektorean behar diren gaitasun profesionalak eskuratzuz.
- Harategi sektorea pertsonal kualifikatuz hornitzea.
- Pertsonen laneratzeko laguntzea.
- Gaitasun pertsonalak hobetzea, autonomia eta trebetasun sozialak.

BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Langabezia-egoeran egotea edo enplegu prekarioa izatea (urtebetean lau hilabetez edo gutxiagoz lan egin izana).
- 20 urtetik 55 urte bitartekoa izatea eskaera egiten den egunean.
- Eibarren erroldatutakoa izatea.
- Gaztelaniaz, mintzatuan eta idatzian, ulermen maila egokia izatea.
- Honako baldintza hauetako bat betetzea:
 - Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzea.
 - Gehienez batxilergo arteko kualifikazioa izatea.

ESKAERA EGITEKO EPEA:

2019ko ekainaren 21etik uztailaren 3ra (biak barne).

TRAMITAZIO KANALAK:

- **Presentziala:** [PEGORA \(Herritarren Zerbitzurako Bulegoa\)](#) Untzaga plaza 1. Beheko solairua.
- **Elektronikoa:** udal webgunetik: www.eibar.eus. Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- a) Harategi/urdaitegiko laguntzaile programan parte hartzeko eskaera. Eredua PEGORAn dago eskuragarri eta webgunean, www.eibar.eus.
- b) LANBIDEk egindako txostena, langabe gisa inskribatuta egondako aldiei buruzkoa.
- c) Lan-bizitza eguneratua
- d) Curriculum vitae eguneratua.

PROGRAMAREN GARAPENA

1. PARTE-HARTZAILEAK AUKERATZEA.
2. HASIERAKO PRESTAKUNTZA. Ikastaroa. Iraupena: 125 ordu.
3. TXANDAKAKO PRESTAKUNTZA. Kontratuarekin (Prestakuntza lan-zentroan + prestakuntza teorikoa). IRAUPENA: 4 HILABETE.